

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

2015eko urria

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

Sarrera

Azterketaren aurkezpena

1. Idatzizko hedabideak

1.1 Egunkariak

- Datu orokorrak.
- *Berriaren eta Eskualdeko Hitzaren* irakurleak honako aldagai hauen arabera:
 - 1.1.a: Euskarria
 - 1.1.b: Irakurtzen emandako denbora
 - 1.1.c: Irakurleen lurraldea
 - 1.1.d: Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 1.1.e: Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

1.2 Tokiko aldizkariak

- Datu orokorrak.
- Irakurle gehien dituzten tokiko aldizkarien irakurleak honako aldagai hauen arabera:
 - 1.2.a: Euskarria eta irakurtzen emandako denbora
 - 1.2.b: Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 1.2.c: Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna
- Gainerako tokiko aldizkariak

1.3 Aldizkari orokorrak eta espezializatuak

- Informazio orokorra eta berezitua eskaintzen duten aldizkarien datu orokorrak.
- *Argiaren* irakurleak honako aldagai hauen arabera:
 - 1.3.a: Euskarria eta irakurtzen emandako denbora
 - 1.3.b: Irakurleen lurraldea
 - 1.3.c: Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 1.3.d: Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

2. Irratiak

2.1 Irrati publikoak

- Datu orokorrak
- *Euskadi Irratiaren eta Gaztearen* entzuleak honako aldagai hauen arabera:
 - 2.1.a. Entzuten emandako denbora
 - 2.1.b. Entzuleen lurraldea
 - 2.1.c. Entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 2.1.d. Entzuleen lehen hizkuntza euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

2.2. Tokiko irradiak

- Datu orokorrak
- *Arrate Irratiaren, Bizkaia Irratiaren, Euskalerrria Irratiaren, Segura Irratiaren eta Xorroxin Irratiaren* entzuleak honako aldagai hauen arabera:
 - 2.2.a. Entzuten emandako denbora
 - 2.2.b. Entzuleen lurraldea
 - 2.2.c. Entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 2.2.d. Entzuleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna
- Gainerako tokiko irratien datu orokorrak

3. Telebistak

3.1. Telebista publikoak

- Datu orokorrak.
- *ETB1*en Ikus-entzuleak honako aldagai hauen arabera:
 - 3.1.a. Ikusten emandako denbora
 - 3.1.b. Ikus-entzuleen lurraldea
 - 3.1.c. Ikus-entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak
 - 3.1.d. Ikus-entzuleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

3.2. Tokiko telebistak

- Datu orokorrak

- *Hamaika Telebistaren* ikus-entzuleak honako aldagai hauen arabera:

3.2.a. Ikusten emandako denbora

3.2.b. Ikus-entzuleen lurraldea

3.2.c. Ikus-entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

3.3.d. Ikus-entzuleen lehen hizkuntza eta euskaraz hitz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

4. Laburbilduz

5. Eranskinak

Sarrera

Patxi Baztarrika Galparsoro
Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen kontsumoa ezagutzeko ikerketa egin du 2015ean. Kontsumitzaileen kopuruak jasotzeaz gain, azterketak kontsumitzaile horien ezaugarri nagusiak ere jaso ditu: adina, sexua, ikasketamaila, lehen hizkuntza edo euskaraz jarduteko erraztasuna, besteak beste.

Komunikazioaren aroan bizi gara, gero eta gehiago eta gero eta modu nahiz bide ugariatik kontsumitzen ditugu askotariko komunikazio produktuak. Horrela, bada, euskarazko komunikazioak eta hedabideek eginkizun garrantzitsua betetzen dute, eta are garrantzizkoagoa betetzera deituta daude. Euskararen Legeak herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Aldi berean, Euskararen Aholku Batzordeak, Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean etorkizunerako erronken artean adierazten da euskarazko hedabideek elkarlana eta koordinazioa bultzatu, baliabideei ahalik eta etekin handiena atera, kalitatea etengabe hobetu eta produktu berriak eskaini behar dituztela.

Helburu horiek lortzeko bidean, ikerketa honek lanabes onuragarria izan nahi du bai euskarazko hedabideentzat bai euskara normalizatzeko ardura dugun erakundeentzat ere. Hortaz, denboran irauteko asmoarekin egin da, unean uneko kopuruen gainetik denboran zeharreko joerak ondo ezagutzeak berebiziko garrantzia duelako.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hobekuntzarako erreminta, hedabideak kontsumitzaile potentzialengana hurbiltzeko lanabes eta elkarlanerako tresna bihurtu nahi du ikerketa. Euskarazko hedabideei buruzko azterketa honek informazio baliagarria eskaini nahi die euskarazko hedabideei, gogokoak eta eraginkorrak diren proiektuak gauzatzeko, Administrazioaren eta komunikazio produktuen sortzaile eta hedatzaileen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzeko, eta euskarazko hedabideen garapenerako ildo nagusiak zehazteko.

Gure helburua, honetan ere, euskararen erabiltzaileak sendotzea eta aldi berean gehitzea baita, eta horrexegatik askotariko euskal irakurleak eta euskarazkoaren ikus-entzuleak sendotu eta areagotzea da helburuaren erdigunean duguna. Denon artean egin dezakegu eta egin dezagun.

Azterketaren aurkezpena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen azterketa egin du 2015eko urtarril eta uztail bitartean. Euskarazko hedabide kontsideratu da euskara hutsean kaleratzen den idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabidea. Hortaz, euskarazko egunkariak, aldizkariak (tokikoak, izaera orokorrekoak eta espezializatuak), irratiak eta telebistak aztertu dira.

Azterketaren helburu nagusia euskarazko hedabideak zenbatek kontsumitzen dituen izan da, eta horrekin batera, kontsumitzaile horien ezaugarri nagusiak zein diren ezagutzea.

Unibertsoa

Azterketaren unibertsoa zehazteko orduan, euskarazko hedabideen kontsumitzaile potentzial nor kontsideratu daitekeen zehaztu behar izan da lehenik eta behin. Horretarako irizpide nagusia euskarazko gaitasunarena izan da.

Beraz, hasteko, euskarazko kontsumitzaile potentzial kontsideratu da euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten duena, hau da, euskalduna. Euskaldunak euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteaz gain, ongi ulertu ere egiten du, noski.

Baina euskaldunez gain, badakigu euskaldun hartzaileen artean badela zati bat euskarazko hedabideen kontsumitzaile potentzial kontsideratu behar duguna. Euskaldun hartzaile horiek zenbat diren zehazteko, galdetegian bertan jarri da filtroa.

Balitzko inkestatu ez euskaldunari irrati edo telebista saio bat ongi edo nahiko ongi ulertzeko edo euskarazko aldizkari bat irakurtzeko gai den galdetu zaio. Baietz erantzun dutenak ere kontuan hartu dira unibertsoa zehazteko.

Baldintza hori bete duten euskaldun hartzaileak lagin osoaren % 6 izan dira. Neurri egokia dela iritzita, horretara ekarri da euskaldun hartzaileen pisua haztapena egin ondoren. Horretarako, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak ematen duen euskaldun hartzaileen kopuruari faktore murriztailea aplikatu zaio: euskaldun hartzaile

guztien hamarrena hartu da kontuan azterketarako (EAEn 0,101487 eta Nafarroan 0,097840). Faktore hori erabili da emaitzak azpi-eskualdeka haztatzeke.

Eremu geografikoari dagokionez, azterketa EAE osoan eta Nafarroako eremu euskaldunetan eta mistoan egin da. Gipuzkoako eta Nafarroako Iparraldeko zenbait euskarazko hedabidek duten zabalkundeagatik, Iparraldeko bost udalerritan ere egin dira inkestak: Hendaian, Urruñan eta Biriatur, batetik, eta Saran eta Senperen, bestetik. Lehenengo hirurak EAEko laginean sartu dira eta azken biak Nafarroakoan.

Adinari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko biztanleek hartu dira kontuan. Eta sexuari dagokionez, inkesten erdia gizonezkoen eta beste erdia emakumezkoen egin zaie.

Unibertsoa, beraz, EAEko eta Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko 16 urte edo gehiagoko 690.250 pertsonen osatzen dute. Horietako % 94 euskaldunak dira, hau da euskaraz ondo hitz egin eta ulertzen dute. Gainerako % 6a gai da euskarazko irrati edo telebista saio bat ondo edo nahiko ondo jarraitzeko edo euskarazko aldizkari bat ondo ulertzeko.

Lagina

Guztira, 8.109 inkesta egin dira: EAEn 7.109 eta Nafarroan 1.000. Inkestak banatzeko prozedura honakoa izan da:

EAE

- EUSTATen 20 eskualdeetatik abiatuta, 18 eskualde zehaztu dira. Horretako, eskualde batzuk batu egin dira eta beste batzuk zatitu, beti ere tokiko hedabideen hedapena oinarri hartuta.
- Inkesten banaketa egiteko orduan, hasteko, eskualde bakoitzari 250 inkesta egokitu zaizkio (eskualde bati 200). Horrela, 4.450 inkesta banatu dira.
- Ondoren, beste 1.800 inkesta banatu dira, modu proportzionalan eskualde bakoitzeko euskaldunen arabera.
- Gainera, tokiko aldizkaria duten udalerrietan lagina handitu egin da. Horrela, beste 750 inkesta banatu dira. Inkestak banatzeko irizpidea udalerririk horietan akats tarteak 500 pertsonakoa baino txikiagoa izatea izan da.
- Azkenik, Hendaian, Urruñan eta Biriatur 120 inkesta egin dira.

NAFARROA

- Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko 6 eskualdeetan egin da. Eskualdeen banaketa Nafarroa 2000 sailkapenaren arabera egin da.
- Nafarroan 1.000 inkesta egin dira guztira. Eremu euskaldunean 600 inkesta egin dira. Saran eta Senperen beste 70 egin dira.
- Eremu mistoan 330 inkesta egin dira.

Landa-lana

- Landa-lana IKERTALDE enpresak egin du.
- Datu-bilketa 2015eko urtarril eta otsail bitartean egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua erabiliz.
- Datuak jasotzeko, CATI (ordenagailu bidezko elkarrizketa telefonikoa) sistema erabili da, eta datuak gordetzeko eta ustiatzeko, SPSS aplikazio estatistikoa.
- Lagin osoaren akats-tartea \pm % 1,11koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$. EAeko laginaren akats-tartea \pm % 1,18koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$, eta Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko laginaren akats-tartea \pm % 3,16koa da % 95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$,

Hedabideen audientzia neurtzeko irizpidea

Datuak ematen hasi aurretik, audientzien azterketak eta neurketak egiten dituzten EGM eta CIES enpresek erabiltzen duten metodologiaren berri emango dugu, hedabideetako audientziak ematen dituztenean, zein datu hartzen duten kontuan jakiteko.

Bi enpresa horiek metodologia bertsua erabiltzen dute. Audientziak neurtzeko, elkarrizketatuak atzo zer ikusi, entzun edo irakurri zuten (*la metodología se basa en el recuerdo del día de ayer*) jasotzen dute. Audientzia datuak ematen dituztenean, beraz, “atzo” hori da kontuan hartzen dutena.

Euskarazko hedabideen audientzia zehazteko, metodologia hori da ikerketa honetan erabili dena. Aurreko egunean egunkaria irakurri dutenek osatuko lukete egunkari horren audientzia, eta gauza bera gainerako hedabideekin.

1. Idatzizko hedabideak

1.1 Egunkariak

Lehenik eta behin, egunkaririk irakurtzen duten galdetu zaie inkestatuei, bereizi gabe hizkuntza (euskara edo gaztelania) edo euskarria (papera edo internet). Egunkaririk irakurtzekotan, zein egunkari irakurtzen duten ere galdetu zaie.

Inkestatuen % 22k erantzun du ez duela egunkaririk irakurtzen. Inkestatuen % 27k Diario Vasco irakurtzen du, % 25ek Correo, % 22k Deia/Noticias, % 20k Gara eta % 17k Berria. Gainerako egunkariak irakurtzen dituztenen ehunekoak % 10 baino txikiagoak da kasu guztietan (% 7k El País, % 6k Hitzak, % 3k El Mundo...).

Egunkari gustukoak edo irakurriak

Diario Vasco eta *El Correo* dira inkestatuen egunkaririk gustukoak edo gehien irakurtzen dituztenak. Izan ere, % 19k dio Diario Vasco duela egunkaririk gustukoena edo irakurriena eta % 15ek El Correo.

Hirugarren eta laugarren egunkaririk gustukoak edo gehien irakurtzen dituztenak *Deia/Noticias* eta *Gara* dira (% 9 eta % 8 hurrenez hurren).

% 7k dio *Berria* duela egunkari gustukoena edo gehien irakurtzen duena. *Hitzak*, ordea, % 2k.

%1ek edo gutxiagok ditu gustukoak edo irakurriak *Diario de Navarra*, *El País* eta *El Mundo*.

Azkenik, egunkariak irakurleen % 11k dio ez duela gustuko egunkari jakin bat ere, eta % 4k besteren bat aipatzen du.

Egunkari gustukoak edo gehien irakurtzen dituztenak lurraldearen arabera honako hauek dira (ehuneko txikiak dutenak ez dira jarriko):

- Araban: % 28k *El Correo*, % 10ek *Deia/Noticias*, % 9k *Gara* eta beste %9k *Berria*. Era berean, % 24k ez du egunkaririk irakurtzen eta % 12k ez du gustuko egunkari jakin bat ere.
- Bizkaian: % 33k *El Correo*, % 10ek *Deia/Noticias*, % 8k *Gara* eta %5ek *Berria*. Horrezaz gain, % 23k ez du egunkaririk irakurtzen eta % 12k ez du gustuko egunkari jakin bat ere.
- Gipuzkoan: % 41ek *Diario Vasco*, %9k *Berria*, % 7k *Gara*, % 4k *Deia/Noticias* eta *Hitza* beste % 4k. Halaber, % 21ek ez du egunkaririk irakurtzen eta % 10k ez du gustuko egunkari jakin bat ere.
- Nafarroan: % 29k *Deia/Noticias*, %11k *Gara*, % 7k *Diario de Navarra*, beste % 7k *Berria* eta % 6k *Diario Vasco*. Azkenik, % 23k ez du egunkaririk irakurtzen eta % 12k ez du gustuko egunkari jakin bat ere.

Euskarazko egunkariak

Euskarazko prentsari dagokionez, hiru egunkari argitaratzen dira euskaraz, *Berria*, *Hitza* eta *Hernaniko Kronika*. Alde handiak dituzte elkarren artean hedapenari, tiradari, orrialde kopuruari, ordainpekoa ala doan izateari, banatze-sistemari eta abarri erreparatuz gero.

Egunero-egunero argitaratzen den bakarra *Hernaniko Kronika* da, *Berria* ez baita astelehenetan kaleratzen eta *Hitzak* ez dira egunero kaleratzen.

Bere ezaugarriengatik *Berria* da horien artean egunkari orokortzat jo dezakegun bakarra. Izan ere, kioskoetan saltzen da, edozein egunkaririk izan ohi dituen atal bertsuak ditu, eta baita gehigarriak ere.

Hala ere, *Berria* egunkariak baditu berezitasun batzuk, lehiakide izan ditzakeen ohiko egunkarien aldean. Izan ere, astelehenetan ez argitaratzeaz gain, ale kopuru handia harpidetza bidez banatzen da.

Tokiko edo eskualdeko egunkaritzat jo dezakegun *Hitza* zazpi eskualdetan banatzen da gaur egun. *Hitza* bakoitzak bere eskualdeko gaiak jorratzen ditu. Honako hauek dira eskualdeetako *Hitzak*: Busturialdeko *Hitza*, Goierriko *Hitza*, Irutxuloko *Hitza*, Lea Artibai eta Mutrikoko *Hitza*, Oarso Bidasoako *Hitza*, Tolosaldeko *Ataria* eta Urola Kostako *Hitza*.

Lurralde desberdinetan ere argitaratzen da *Hitza*, baina astean behineko maiztasuna du. Hortaz, aldizkari edo gehigarritzat ere jo daiteke.

Azkenik, *Hernaniko Kronika* herrian banatzen den egunerokoa da.

Euskarazko egunkariei buruz galdetuta, inkestaturen % 70,2k ez du inoiz euskarazko egunkaririk irakurtzen. Gainerako % 29,8k euskarazko egunkariren bat irakurtzen du egunero, astean hiru edo lau aldiz edo noizean behin.

Audientzia datuak

Azterketaren aurkezpenean esan bezala, erreferentziazkoak diren audientzia-neurketa publikoetan (CIES, EGM...) erabilitako irizpide bera erabili da ikerketa honetan audientzia datua emateko, hots, egunkaria ATZO irakurri zutenen kopurua. Kopuru hori egunkaria paperean, Interneten edota bietan irakurtzen dutenena da.

| Egunkarien audientzia | |
|------------------------------|--------|
| Berria | 36.644 |
| Hitza (eskualdekoa) | 15.976 |
| Hernaniko Kronika | 4.698 |

Irizpide horren arabera, *Berriaren* irakurleak 36.644 dira, horiek aitortu baitute egunkaria "atzo" irakurri zutela.

Eskualdeko Hitzak 15.976 irakurle ditu eta *Hernaniko Kronikak* 4.698 irakurle.

- ***Berriaren eta Eskualdeko Hitzaren* irakurleak honako aldagai hauen arabera:**

1.1.a.Euskarria

% 48k paperean soilik irakurtzen du *Berria*, % 31k Interneten soilik eta beste % 20k bi euskarrietan.

Eskualdeko Hitzari dagokionez, % 82k paperean soilik irakurtzen du, % 10ek Interneten soilik, eta beste % 8k bi euskarrietan.

1.1.b. Irakurtzen emandako denbora

Berria irakurtzen dutenen artean % 29k hamar minutu edo gutxiago ematen dute irakurtzen, % 34k hamabost edo hogeit hamar minutu, % 23k 30 minutu eta % 13k berrogeita bost minutu edo gehiago.

Eskualdeko Hitzari irakurtzen dutenen artean % 43k hamar minutu edo gutxiago ematen dute irakurtzen, % 35ek hamabost edo hogeit hamar minutu, % 17k 30 minutu eta % 6k berrogeita bost minutu edo gehiago.

1.1.c. Irakurleen lurraldea

Berriaren irakurleen artean % 11 arabarrak dira, % 31 bizkaitarrak, % 48 gipuzkoarrak eta % 10 nafarrak.

Eskualdeko Hitzeko irakurle ia guztiak gipuzkoarrak (% 72) eta bizkaitarrak dira (% 25). Arabakoak eta Nafarroakoak % 1 dira.

1.1.d. Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

Generoari dagokionez, *Berriaren* irakurleen % 56 gizonezkoak dira eta %44 emakumezkoak.

Adinaren arabera irakurleen ezaugarriak ezagutzeko, hiru adin-talde bereizi dira inkestan: 16-34, 35-49 eta 50 urte edo gehiago. *Berriaren* irakurleen % 38 lehen

adin-taldekoa dira (16 eta 34 urte bitartekoak), bigarren taldekoa % 32 dira eta hirugarrenekoak % 31 (50 urte edo gehiago).

Irakurleen ikasketari dagokienez, % 8k lehen mailako ikasketak dituzte, % 36k erdi mailakoak eta % 56k goi mailakoak.

Eskualdeko Hitzaren irakurleen artean, gehiago dira emakumezkoak (%52) gizonezkoak baino (%48).

Adinari erreparatuz gero, ikus daiteke *Hitzaren* irakurleen artean 50 urte edo gehiagokoek osatzen dutela adin talde nagusia (% 42). % 28, ordea, 16-34 urte bitartekoak dira, eta % 30 dira 35-49 urte bitartekoak.

Irakurleen ikasketari dagokienez, % 24k lehen mailako ikasketak dituzte, % 42k erdi mailakoak eta % 34k goi mailakoak

1.1.e. Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

Berriaren irakurleen % 62aren lehen hizkuntza euskara da, % 8rena euskara eta gaztelania eta % 30ena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 42k aitortu dute erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 41ek euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna dutela eta % 17k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa dutela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean *Berriaren* irakurleen % 25ek diote errazago irakurtzen duela euskaraz, % 44k bi hizkuntzetan irakurtzeko erraztasun bera duela eta % 31k errazago irakurtzen dutela gaztelaniaz.

Hitzaren irakurleen % 84aren lehen hizkuntza euskara da, % 4arena euskara eta gaztelania eta % 12arena, ordea, gaztelania.

Horrezaz gain, % 58k aitortu dute erraztasun handiagoa duela euskaraz hitz egiteko gaztelaniaz baino, % 32k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 10ek gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *Hitzaren* irakurleen % 25ek erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 33k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 44k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

1.2 Tokiko aldizkariak

Tokiko aldizkariak gertuko informazioa jorratzen dute, dela herrikoa dela eskualdekoa.

Maiztasunari dagokionez, gehienak astekariak edo hamabostekariak dira, eta maiztasun horrekin argitaratzen diren aldizkariak dira irakurle-kopuru handiena dutenak, nahiz eta hilabetekari, bihilabetekari edo hiruhilabetekari zenbait ere argitaratzen den.

Tokiko aldizkarien irakurleak inkestaren arabera

Azterketaren aurkezpenean esan bezala, erreferentziazkoak diren audientzia-neurketa publikoetan (CIES, EGM...) erabilitako irizpide bera erabili da ikerketa honetan audientzia datua emateko, hots, aldizkariaren AZKEN ALEA irakurri zutenen kopurua. Kopuru hori aldizkaria paperean, Interneten edota bietan irakurtzen dutenena da.

| Tokiko aldizkarien audientzia | |
|--------------------------------------|--------|
| Goiena | 18.102 |
| Ttipi-ttapa | 11.997 |
| Anboto | 11.047 |
| Eta Kitto | 7.379 |
| UK (Uribe Kosta) | 5.199 |
| Uztarria | 5.017 |
| Barren | 4.942 |
| Aiurri | 4.889 |
| Begitu | 3.748 |
| Guaixe | 3.535 |
| Lurraldeko Hitza | 3.448 |
| Karkara | 3.074 |
| Kontzejupetik | 2.983 |
| Goiberri | 2.945 |
| Aikor | 2.874 |
| Noaua | 2.588 |
| Alea | 2.405 |
| Aiaraldea | 2.358 |
| Txintzarri | 2.101 |
| Baleike | 2.022 |
| Ze Berri | 1.775 |
| Danbolin | 1.770 |
| Berton | 1.726 |

| | |
|----------------|-------|
| Hondarribia | 1.633 |
| Pulunpe | 1.590 |
| Kalaputxi | 1.397 |
| Irunero | 1.376 |
| Mondraberry | 1.285 |
| Artzape | 1.282 |
| Pilpilean | 1.226 |
| Drogeteniturri | 1.196 |
| Getxoberri | 1.172 |
| Arranondo | 1.146 |
| Bagabiz | 1.146 |
| Mailope | 1.034 |
| Berriketan | 1.024 |
| Prest | 918 |
| Hilero | 831 |
| Aldaize | 725 |
| Maxixatzen | 607 |
| Azpeitian Zer | 542 |
| Akatz | 426 |
| Puntua | 395 |
| | |

- *Goiena* da irakurle gehien dituen tokiko aldizkaria, 18.102 pertsonak aitortu baitute *Goienaren* azken alea irakurri dutela.
- *Ttipi-ttapa* da irakurle gehien duen bigarren tokiko aldizkaria, 11.997 irakurle baititu.
- Ondoren, dator *Anboto*. 11.047 pertsonak adierazi dute *Anboto* aldizkariaren azken zenbakia irakurri dutela.
- Inkestaren arabera, *Eta Kitto* aldizkaria 7.379 pertsonak irakurri dute azken alea.
- *UK* aldizkariari dagokionez, azken alea 5.199 pertsonak irakurri dute..

- *Uztarriaren* azken alea 5.017k irakurri dute.
- *Barren* aldizkariari dagokionez, 4.942 pertsonak irakurri dute aldizkariaren azken alea.
- Azkenik, *Aiurri* bi ditugu izen berarekin. Datuak jaso direnean ez dira bi *Aiurriak* bereizi. *Aurrien* irakurleak 4.889 dira.

- Arestian aipaturiko tokiko aldizkarien irakurleen ezaugarriak honako aldagai hauen arabera:

1.2.a Euskarria eta irakurtzen emandako denbora

Tokiko aldizkarien irakurle gehienek paperean soilik irakurtzen dute. Honako hauek dira datuak: *Goienako irakurleen* % 80, *Ttipi-Ttaparen* eta *Anbotoren* % 91, *Eta Kittoren* % 97, UK (Hiruka)ren % 92, *Uztarriaren* % 57, *Barrenen* % 78 eta *Aiurriren* % 97.

Interneten irakurtzen dituztenen ehunekorik handiena *Uztarriak* du. Izan ere, % 17k Interneten soilik irakurtzen du *Uztarria* eta beste % 26k bi euskarrietan.

Tokiko aldizkarien irakurle gehienek 15-30 minutu ematen dute aldizkaria irakurtzen: *Goienako irakurleen* % 68k, *Ttipi-Ttaparen* % 66k, *Anbotoren* % 65ek, *Eta Kittoren* % 54k, UK (Hiruka)ren % 67k, *Uztarriaren* % 73k, *Barrenen* % 67k eta *Aiurriren* % 67k.

1.2.b.Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

Generoari dagokionez, emakumezkoek gizonaizkoek baino gehiago irakurtzen dituzte tokiko aldizkariak.

Horrela, honako aldizkari hauetan irakurle gehienak emakumezkoak dira: *Goiena* (% 52), *Anboto* (% 56), *Eta Kitto* (% 52), *UK* (% 55), *Uztarría* (% 53) eta *Barren* (% 53). Bestalde, *Ttipi-Ttapan* parekatuta daude irakurleak sexuaren arabera (% 50na). *Aiurrin*, ordea, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino (% 55 gizonezkoak).

Adinaren araberako ezaugarriak ezagutzeko, hiru adin talde bereizi dira inkestan: 16-34, 35-49 eta 50 urte edo gehiago.

UK (% 49) eta *Barren* (% 40) aldizkarietan 16-34 urte bitartekoak dira nagusi hiru adin taldeak erkatuz.

Gainerako toki aldizkarietan 50 urte edo gehiagokoak dira nagusi: *Goiena* (% 48), *Ttipi-Ttapa* (% 41), *Eta Kitto* (% 45) eta *Aiurri* (% 51).

Horiezaz gain, 50 urte edo gehiago dituzte *Anboto* (% 38) eta *Uztarría* (% 36) irakurtzen dutenen artean. Dena dela, ez dute alde handirik gazteagoak direnekiko. Esate baterako, *Anboto* irakurtzen dutenen % 36 da 16-34 urte bitartekoa eta 35-49 urte bitartekoa *Uztarría* irakurtzen dutenen % 35.

Irakurleen ikasketei dagokienez, gutxiengoa dira lehen mailako ikasketak dituztenak, irakurle gehienek erdi mailako ikasketak baitituzte (% 41 eta % 52 bitartean), nahiz eta goi mailako ikasketak ere askok dituzten (% 25 eta % 37 bitartean).

UK aldizkariko irakurle gehienek, ordea, goi mailako ikasketak dituzte (% 51).

1.2.g.Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

- *Goienaren* irakurleen % 76ren lehen hizkuntza euskara da, % 6rena euskara eta gaztelania eta % 18rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 42k erraztasun handiagoa du euskaraz hitz egiteko gaztelaniaz baino, % 37k bietan berdin eta % 21ek gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa du.

Era berean, *Goienaren* irakurleen % 15ek dio errazago irakurtzen duela euskaraz gaztelaniaz baino, % 31k bi hizkuntzetan irakurtzeko erraztasun bera duela eta % 53k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Ttipi-Ttaparen* irakurleen % 82ren lehen hizkuntza euskara da, % 6rena euskara eta gaztelania eta % 12rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 49k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 34k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 17k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean *Ttipi-Ttaparen* irakurleen % 18k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 26k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 56k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Anbotoren* irakurleen % 73ren lehen hizkuntza euskara da, % 10rena euskara eta gaztelania dira eta % 18rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 37k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 44k bietan berdin eta % 19k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean *Anbotoren* irakurleen % 18k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 30ek erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 52k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Eta Kitto* irakurtzen dutenen % 58ren lehen hizkuntza euskara da, % 11rena euskara eta gaztelania dira eta % 32rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 13k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 34k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 53k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *Eta Kittoren* irakurleen % 8k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 21ek erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 71k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *UKren* irakurleen % 39ren lehen hizkuntza euskara da, % 11rena euskara eta gaztelania dira eta % 52rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, %8k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 58k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 34k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *UKren* irakurleen % 6k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 41ek erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 54k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Uztarriaren* irakurleen % 90en lehen hizkuntza euskara da, % 2rena euskara eta gaztelania dira eta % 8rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 80k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 16k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 4k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean, *Uztarriaren* irakurleen % 35ek erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 27k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 38k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Barrenen* irakurleen % 66ren lehen hizkuntza euskara da, % 4rena euskara eta gaztelania eta % 29rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 35ek aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 47k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 18k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean, *Barrenen* irakurleen % 17k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 29k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 54k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

- *Aiurriren* irakurleen % 81en lehen hizkuntza euskara da, % 2rena euskara eta gaztelania eta % 16rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko gaitasunari dagokionez, % 52k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 28k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 20k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean *Aiurriren* irakurleen % 23k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 29k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 48k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

Gainerako tokiko aldizkariak

- 4.000-3.000 irakurle dituztenen artean, hau da, azken alea irakurri dutenen artean, honako hauek ditugu hurrenez hurren: *Begitu* (3.748 irakurle), *Guaixe* (3.535 irakurle), *Lurraldeko Hitza* (3.448 irakurle) eta *Karkara* (3.074 irakurle).
- 3000-2000 irakurle dituztenen artean honako aldizkari hauek ditugu hurrenez hurren: *Kontzejupetik* (2.983 irakurle), *Goiberri* (2.945 irakurle), *Aikor* (2.874 irakurle), *Noaua* (2.588 irakurle), *Alea* (2.405 irakurle), *Aiaraldea* (2.358 irakurle), *Txintxarri* (2.101 irakurle), eta *Baleike* (2.022 irakurle).
- 2.000-1.000 irakurle dituztenak honako hauek dira hurrenez hurren: *Zer Berri* (1.775 irakurle), *Danbolin* (1.770 irakurle), *Berton* (1.726 irakurle), *Hondarribia* (1.633 irakurle), *Pulunpe* (1.590 irakurle), *Kalaputxi* (1.397 irakurle), *Irunero* (1.376 irakurle), *Mondraberrri* (1.285 irakurle), *Artzape* (1.282 irakurle), *Pilpilean* (1.226 irakurle), *Drogeteniturri* (1.196 irakurle), *Getxoberri* (1.172 irakurle), *Arranondo* (1.146 irakurle), *Bagabiz* (1.146 irakurle), *Mailope* (1.034 irakurle), *Berriketan* (1.024 irakurle).
- Azkenik, 1.000 irakurletik behera dituztenak ditugu: *Prest*, *Hilero*, *Aldaize*, *Maxixatzen*, *Azpeitian Zer*, *Akats*, *Puntua*...

1.3 Aldizkari orokorrak eta espezializatuak

Datu orokorrak

Azterketaren aurkezpenean esan bezala, erreferentziazkoak diren audientzia-neurketa publikoetan (CIES, EGM...) erabilitako irizpide bera erabili da ikerketa honetan audientzia datua emateko, hots, aldizkariaren AZKEN ALEA irakurri

zutenen kopurua. Kopuru hori aldizkaria paperean, Interneten edota bietan irakurtzen dutenena da.

| Bestelako aldizkarien audientzia | |
|---|-------|
| Argia | 9.850 |
| Aizu | 2.503 |
| Elhuyar | 1.947 |
| Hik Hasi | 1.705 |
| Ikastola | 1.572 |
| Gaztezulo | 1.354 |
| Administrazioa Euskaraz | 1.132 |
| Herria | 944 |
| Bertsolari | 571 |
| Axular | 512 |
| Jakin | 429 |
| Habe | 321 |
| | |

Jarraian, honako aldizkari hauek aztertuko dira: *Argia*, informazio orokorra euskaraz eskaintzen dutenen artean, eta *Aizu*, *Elhuyar*, *Hik-hasi*, *Ikastola*, *Bertsolari*, *Gaztezulo*, *Administrazioa Euskaraz*, *Herria*, *Bertsolari*, *Axular*, *Jakin* eta *Habe* aldizkari espezializatuen artean.

- *Argia* aldizkariak 9.850 irakurle ditu.

Aldizkari espezializatuen azken alea irakurri dutela diotenak honako hauek dira:

- *Aizu*: 2.503 irakurle
- *Elhuyar*: 1.947 irakurle
- *Hik-hasi*: 1.705 irakurle
- *Gaztezulo*: 1.354 irakurle
- *Administrazioa Euskaraz*: 1.132 irakurle.

Gainerako aldizkarien azken alea irakurri dutenak 1.000 baino gutxiago dira.

- *Argia* astekariaren irakurleak honako aldagai hauen arabera:

1.3.a.Euskarria eta irakurtzen emandako denbora

Irakurle gehienek paperean soilik irakurtzen dute Argia (% 68), baina % 20k internetetik bakarrik eta % 12k bi euskarrietan irakurtzen du aldizkaria.

Argia irakurtzen dutenen artean % 15ek hamar minutu edo gutxiago ematen dute irakurtzen, % 33k hamabost edo hogeita minutu, % 27k 30 minutu eta % 25k berrogeita bost minutu edo gehiago.

1.3.b.Irakurleen lurraldea

Argiaren irakurleen % 7 arabarrak dira, % 25 bizkaitarrak, % 60 gipuzkoarrak eta % 7 nafarrak.

1.3.c.Irakurleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

Argiaren irakurleen % 67 dira gizonezkoak eta % 33 emakumezkoak.

Adinaren arabera irakurleen ezaugarriak ezagutzeko, hiru adin-talde bereiztu dira inkestan: 16-34, 35-49 eta 50 urte edo gehiago. *Argiaren* irakurleen % 31 lehen adin taldekoa da, bigarren taldekoa % 23, eta hirugarrenekoa % 47.

Irakurleen ikasketari dagokienez, % 9k lehen mailako ikasketak ditu, % 28k erdi mailakoak eta % 62k goi mailakoak.

1.3.d.Irakurleen lehen hizkuntza eta euskaraz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

Argiaren irakurleen %76ren lehen hizkuntza euskara da, % 4rena euskara eta gaztelania dira eta % 20rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 58k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 34k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 9k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *Argiaren* irakurleen % 39k dio errazago irakurtzen duela euskaraz, % 36k bi hizkuntzetan berdinean eta % 24k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

2. Irratiak

Inkestaren datuak emateko, irratiaren artean bi multzo bereizi dira, irrati publikoak eta tokiko irratiak

2.1 Irrati publikoak

Azterketaren aurkezpenean esan bezala, erreferentzia-koak diren audientzia-neurketa publikoetan (CIES, EGM...) erabilitako irizpide bera erabili da ikerketa honetan audientzia datua emateko, hots, irrati ATZO entzun zutenen kopurua.

| Irrati publikoen audientzia | |
|-----------------------------|---------|
| Euskadi Irratia | 133.181 |
| Gaztea | 112.797 |
| | |

Euskadi Irratia eta *Gaztea* irrati publikoen datuak jaso dira. Orotariko irratiaren artean *Euskadi Irratia* dugu Euskal Herri osora hedatuta dagoen euskarazko irrati bakarra. *Gaztea*, ordea, "irradi formula" deritzen artean koka dezakegu.

Inkestaren datuen arabera, 133.181 pertsonak *Euskadi Irratia* entzun zuten aurreko egunean (atzo).

Gazteak 16 urte edo gehiagoko 112.797 entzule ditu (aurreko egunean entzun zutenak). Gogoan izan behar da *Gaztearen* entzule asko 16 urte baino gutxiagokoak direla eta horiek ez direla jaso.

-Euskadi Irratiaren eta Gaztearen entzuleen ezaugarriak honako aldagai hauen arabera:

2.1.a. Entzuten emandako denbora

Entzule gehienek ordu erdi (%43) edo ordu bat entzuten dute (% 31) *Euskadi irratia*. Gauza bera esan daiteke *Gazteaz*. Izan ere, %51k ordu erdi edo gutxiago entzuten du eta % 32k ordu bat.

2.1.b. Entzuleen lurraldea

Euskadi Irratiaren entzuleen % 6 arabarrak dira, % 29 bizkaitarrak, % 60 gipuzkoarrak eta % 9 nafarrak.

Gaztearen entzuleen % 9 arabarrak dira, % 43 Bizkaikoak dira, % 42 Gipuzkoakoak eta % 5 Nafarroakoak.

2.1.c. Entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

Generoari dagokionez, *Euskadi Irratiaren* entzuleen % 52 dira gizonezkoak eta % 48 emakumezkoak.

Adinaren araberako entzuleen ezaugarriak ezagutzeko, hiru adin-talde bereizi dira inkestan: 16-34, 35-49 eta 50 urte edo gehiago. *Euskadi Irratiaren* entzuleen % 19 lehen adin-taldekoa da, bigarren taldekoa % 33 eta gehiengoa hirugarrenekoa, hau da, % 48.

Entzuleen ikasketei dagokienez, % 25ek lehen mailako ikasketak ditu, % 37k erdi mailakoak eta % 37k goi mailakoak.

Gaztearen entzuleen artean % 48 dira gizonezkoak eta % 52 emakumezkoak. Adinaren arabera irakurleen ezaugarriak kontuan hartuz, 16-34 urtekoak dira % 66, 35-49 urtekoak % 26 eta 50 urte edo gehiagokoak % 8.

Entzuleen ikasketei dagokienez, % 8k lehen mailako ikasketak ditu, % 55ek erdi mailakoak eta % 37k goi mailakoak

2.1.d. Entzuleen lehen hizkuntza eta euskaraz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

Euskadi Irratiaren entzuleen % 70en lehen hizkuntza euskara da, % 7rena euskara eta gaztelania dira eta % 23ena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 42k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 36k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 23k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko gaitasunari buruz galdetzean *Euskadi Irratiaren* entzuleen % 17k dio errazago irakurtzen duela euskaraz, % 29k bi hizkuntzetan irakurtzeko erraztasun bera duela eta % 54k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

Gaztearen entzuleen % 47ren lehen hizkuntza euskara da, % 10ena euskara eta gaztelania eta % 40rena, ordea, gaztelania.

Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 26k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 37k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 37k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean, *Gaztearen* entzuleen % 15ek erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 31k erraztasun

bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 55ek errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

2.2. Tokiko irratiak

Azterketaren aurkezpenean esan bezala, erreferentziazkoak diren audientzia-neurketa publikoetan (CIES, EGM...) erabilitako irizpide bera erabili da ikerketa honetan audientzia datua emateko, hots, irratia ATZO entzun zutenen kopurua.

| Tokiko irratiien audientzia | |
|-----------------------------|--------|
| Arrate Irratia | 10.943 |
| Bizkaia Irratia | 7.253 |
| Euskalerrria Irratia | 5.362 |
| Xorroxin Irratia | 2.760 |
| Segura Irratia | 2.932 |
| Herri Irratia | 1.269 |
| Gure Irratia | 634 |
| Itsuki Irratia | 946 |
| Hala Bedi | 788 |
| Bilbo Hiria Irratia | 308 |
| Beleixe Irratia | 168 |
| Oiartzun Irratia | 129 |
| Info7 | 215 |
| Eguzki Irratia | 308 |
| Karrape Irratia | 197 |
| Antxeta Irratia | 209 |
| | |

Honako hauek dira audientziak (aurreko egunean irrati hori entzun zutenak):

- *Arrate Irratia* da entzule gehien duena (10.943 entzule).
- *Bizkaia Irratiari* dagokionez, 7.253 entzule ditu.
- *Euskalerrria Irratiak* 5.362 entzule izan zituen aurreko egunean.
- *Segura Irratiak* 2.932 entzule ditu.

- Azkenik, *Xorroxin Irratiak* 2.760 entzule izan zituen bezperan.

Gainerako irratiek 1.300 entzule baino gutxiago dituzte.

- Arrate Irratiaren, Bizkaia Irratiaren, Euskal Herria Irratiaren, Segura Irratiaren eta Xorroxin Irratiaren entzuleen ezaugarriak honako aldagai hauen arabera:

2.2.a. Entzuten emandako denbora

Irrati hauek ordu erdi edo gutxiago entzuten dituzte entzuleen % 40k baino gehiagok, *Arrate Irratia* izan ezik (% 29). Horrela, ordu erdi edo gutxiago entzuten dute *Bizkaia Irratiaren* entzuleen %42k, *Euskal Herria Irratiaren* % 56k, *Segura Irratiaren* % 43k eta *Xorroxin Irratiaren* % 40k.

Ordu bete entzuten dutenak ere ehuneko handia dira: *Arrate Irratiaren* entzuleen % 29, *Bizkaia Irratiaren* % 25, *Euskal Herria Irratiaren* % 23, *Segura Irratiaren* % 32 eta *Xorroxin Irratiaren* % 25.

Ordu bi edo ordu bi baino gehiago entzuten dituztenen ehunekoak honakoak dira: *Arrate Irratiaren* entzuleen % 42, *Bizkaia Irratiaren* % 33, *Euskal Herria Irratiaren* % 20, *Segura Irratiaren* % 25 eta *Xorroxin Irratiaren* % 35.

2.2.b. Entzuleen lurraldea

Arrate Irratiaren entzuleen % 84 gipuzkoarrak dira, % 14 bizkaitarrak, % 1 arabarrak eta beste % 1 nafarrak.

Bizkaia Irratiari dagokionez, entzuleen % 98 bizkaitarrak dira, % 1 gipuzkoarrak eta beste % 1 arabarrak.

Euskal Herri Irratiaren entzuleen % 86 nafarrak dira % 12 gipuzkoarrak, %6 bizkaitarrak eta % 3 arabarrak.

Segura Irratiaren entzuleen % 93 gipuzkoarrak dira, % 3 nafarrak, % 2 bizkaitarrak eta % 2 arabarrak.

Azkenik, *Xorroxin Irratiaren* entzuleen % 96 nafarrak dira, % 2 gipuzkoarrak eta beste % 2 arabarrak.

2.2.c. Entzuleen ezaugarriak: sexua, adina, ikasketak

Entzuleen artean gehiago dira emakumezkoak (% 53 edo % 54) gizonezkoak baino *Arrate Irratiaren* eta *Segura Irratiaren* entzuleak izan ezin (emakumezkoak % 47 eta % 44 hurrenez hurren).

Adinaren arabera entzuleen ezaugarriak ezagutzeko, hiru adin talde bereiztu dira inkestan: 16-34, 35-49 eta 50 urte edo gehiago.

Arrate Irratiaren eta *Segura Irratiaren* entzule gehienak 50 urte edo gehiagokoak dira (% 84 eta % 79).

Bizkaia Irratiaren eta *Xorroxin Irratiaren* entzule gehienak ere 50 urte edo gehiagokoak dira (% 59 eta % 46), baina 35-49 urte bitarteko entzuleen ehunekoa ere nahiko handia da (% 29 eta % 36).

Euskalerria Irratiaren entzuleen % 33 dira 50 urte edo gehiagokoak, baina gehiago dira 35-49 urte bitartekoak (% 45).

Entzuleen ikasketei dagokienez, *Arrate Irratiaren* eta *Segura Irratiaren* entzule gehienek lehen mailako ikasketak dituzte (% 62 eta % 65). Era berean, *Bizkaia Irratiaren* eta *Xorroxin Irratiaren* entzule askok ere lehen mailako ikasketak dituzte (% 39 eta % 48). *Euskalerria Irratiaren* entzuleen ikasketak mailari erreparatuz, gehienek goi mailakoak dituzte (% 61) eta gutxiengoa dira, ordea, lehen mailako ikasketak dituztenak (% 5).

2.2.d. Entzuleen lehen hizkuntza eta euskaraz egiteko eta irakurtzeko erraztasuna

Arrate Irratiaren entzuleen % 93ren lehen hizkuntza euskara da, % 2rena euskara eta gaztelania eta % 5ena, ordea, gaztelania. Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, % 66k aitortu du erraztasun handiagoa duela euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 25ek euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna duela eta % 9k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa duela.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *Arrate Irratiaren* entzuleen % 16k dio errazago irakurtzen duela euskaraz, % 23k bi hizkuntzetan irakurtzeko erraztasun bera duela eta % 61ek errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

Bizkaia Irratiaren entzuleen % 77ren lehen hizkuntza euskara da, % 10ena euskara eta gaztelania eta %14rena, ordea, gaztelania. Era berean, % 48k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, % 37k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna eta % 15ek erraztasun handiagoa du gaztelaniaz.

Hizkuntza batean ala bestean irakurtzeko erraztasunari buruz galdetzean *Bizkaia Irratiaren* entzuleen % 14k erantzun du errazago irakurtzen duela euskaraz, % 29k erraztasun bera duela hizkuntza batean zein bestean eta % 58k errazago irakurtzen duela gaztelaniaz.

